

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAIXOTASUN PROFESIONALAREN SUSMOEN JAKINARAZPENAK 2022

2022KO AZTERKETAREN TXOSTENA
2013-2022 URTEETAKO BILAKAERA

OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoan

2022. urteko analisi-txostena
2013-2022 urteetako bilakaera



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



Barakaldo, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Izenburua: Comunicaciones de sospechas de enfermedad profesional en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Informe de análisis del año 2022. Evolución de los años 2013-2022. / Euskal Autonomia Erkidegoko gaixotasun profesionalaren susmoen jakinarazpenak 2022. 2022ko azterketaren txostena. 2013-2022 urteetako bilakaera.

Argitaraldia: 1.a, 2023ko abendua

Ale-kopurua: 40 ale.

© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

Argitaratzailea: OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales
Dinamita bidea, z.g. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Egileak: Idiazabal Garmendia, Jasone (OSALAN), López Echaniz, Idoia (OSALAN), Camarón Echeandia, Idoia (OSALAN), Ollakindia Bueno, Noemi (OSALAN), Ibáñez Vallejo Leire (OSALAN).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Diseinua eta inprimaketa: Fotocomposición IPAR S.COOP.
Zurbaran Kalea 2, 4- behe. 48007 Bilbao (Bizkaia).

Lege-gordailua: LG BI 1637-2023

Aurkibidea

Taulen aurkibidea	6
Grafikoen aurkibidea	7
Laburdurak	8
Aurkezpena	9
1. Sarrera eta helburuak	10
2. Metodoa	12
2.1. Datu-iturria eta aztertutako denbora-tartea	12
2.2. Aztertutako populazioa, sartzeko irizpideak eta kanporatzeko irizpideak	13
2.3. Aztertutako aldagaiak eta erabilitako maiztasun-neurriak	13
3. Emaitzak	15
3.1. Gaixotasun Profesionalaren Susmoa (GPS) bilakaera 2013-2022	15
3.2. 2022. urteko Gaixotasun Profesionalaren Susmoen (GPS) jakinarazpen guztien analisia	23
3.3. 2022. urtean izapidetutako Gaixotasun Profesionalaren Susmoen (GPS) jakinarazpen analisia	25
4. Ondorioak	38

Taulen aurkibidea

GPS-1 taula.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa. EAE, 2013-2022	15
GPS-2 taula.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2013-2022.	17
GPS-3 taula.	Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera. EAE, 2013-2022	19
GPS-4 taula.	Jakinarazpenen jatorria PZ motaren arabera. EAE, 2013-2022 ..	19
GPS-5 taula.	Jakinarazpenen jatorria ESI-ka. EAE, 2013-2022.	20
GPS-6 taula.	Jakinarazpenen kopurua diagnosi-taldearen arabera. EAE, 2013-2022.	21
GPS-7 taula.	Gaixotasun osteomuskularren jakinarazpenen kopurua. EAE, 2013-2022.	21
GPS-8. taula.	Jakinarazpenen jatorria prebentzio-zerbitzuen arabera. EAE, 2022.	24
GPS-9 taula.	Jakinarazpenen guztirako kopurua eta emaitza jatorriaren arabera. EAE, 2022.	25
GPS-10 taula.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2022	26
GPS-11 taula.	Jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera eta sexuaren arabera. EAE, 2022	30
GPS-12. taula.	Jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta sexuaren arabera. EAE, 2022.	31
GPS-13. taula.	Jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2022.	32
GPS-14 taula.	Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2022	34
GPS-15 taula.	Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldeen arabera, sexuka. EAE, 2022.	35
GPS-16 taula.	Jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2022.	36

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-indizea eta kopurua. EAE, 2013-2022.	16
2. grafikoa.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa lurraldeka. EAE, 2013-2022.	16
3. grafikoa.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2013-2022.	17
4. grafikoa.	Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera. EAE, 2013-2022.	18
5. grafikoa.	Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sexuaren arabera. EAE, 2013-2022.	22
6. grafikoa.	Onartutako jakinarazpenen ehunekoa jatorriaren arabera. EAE, 2013-2022.	23
7. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2022.	25
8. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2022.	27
9. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua 1299/2006 ED-ko taldeen arabera. EAE, 2022.	28
10. grafikoa.	Jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera. EAE, 2022.	29
11. grafikoa.	Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta sexuaren arabera. EAE, 2022.	33
12. grafikoa.	Jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2022.	36
13. grafikoa.	Jakinarazpenen eta ebazpenen kopuruak. EAE, 2022.	37

Laburdurak

OA	Ospitaleko arreta
LMA	Lehen mailako arreta.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
GNS	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena
GPSA	Gaixotasun profesionalaren susmoaren adierazpena
GP	Gaixotasun profesionala
EUSTAT	Euskal Estatistika Erakundea
IM	Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoa
GSIN	Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala
GSML	Gizarte Segurantzarekiko mutualitate laguntzaileak
O	Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua
ESI	Erakunde sanitario integratua (Osakidetzakoa)
GPS	Gaixotasun profesionalaren susmoa
PZ	Prebentzio-zerbitzua
KPZ	Kanpoko prebentzio-zerbitzua
PZP-PZM	Prebentzio-zerbitzu propioa - Prebentzio-zerbitzu mankomunatua
LOU	Osalaneko Laneko Osasunaren Unitatea

Aurkezpena

Urtero bezala, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakunde autonomoak, txosten bat egin du Euskal Autonomia Erkidegoan jakinarazi diren gaixotasun profesionalen susmoak aztertzeko. Gaixotasun profesionalaren susmoa adierazko prozedura (GPSA) azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuan oinarritzen da (Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartzen duen eta gaixotasun horiek jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituen Errege Dekretua), eta, horren arabera, Osasun Sistema Nazionaleko eta prebentzio-zerbitzuetako fakultatiboek gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen gaixotasunak jakinarazi behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hainbat arautan ezartzen da gaixotasun profesionalaren susmoa adierazteko sistema hori. GPSen jakinarazpenaren helburua gaixotasun profesionalen adierazpena erraztea da. Horrela, sistema publikoko zein prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuetatik laneko-gaixotasunen identifikazioa eta jakinarazpena areagotuz, eta gaixotasun profesionalen arloan Gizarte Segurantzaren babes-ekintzarako eskubidean langileekin lankidetzan arituz, arlo horretako ezagutza sustatuko dugu, hori funtsezkoa baita laneko osasunaren arloko prebentzio-planak eta -programak garatu ahal izateko.

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

1.

Sarrera eta helburuak

Gaixotasun Profesionalaren Susmoa (GPS) jakinarazteko prozeduraren oinarri juridikoa azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretua da, Gizarte Segurantzaren sisteman lanbide-gaixotasunen taula onartu eta jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituen (2006ko abenduaren 19ko BOE, 302. zk.).

Errege-dekretu horrek agintzen du aldatu egingo dela jakinarazteko eta erregistratzeko sistema, eta prozedura hori susmo-diagnostikoa egin dezaketen langile medikoekin lotuko dela, gaixotasun profesionalen deklarazioa hobetze aldera, *Gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen gaixotasunen jakinarazpena* izenburuko 5. artikulua bidez.

Artikulu hori Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) egokitze, GAIKOTASUN PROFESIONALEN SUSMOAK JAKINARAZTEKO sistema bat eratu da, eta haren arabera, Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Laneko Osasuneko Unitateak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoen osatutako organoak izango ditu arlo horretako eskumenak.

Sistema hori honako arau hauen mende dago: «2007ko abenduaren 26ko Jarraibidea, Osasun sailburuordearena, Osalaneko zuzendari nagusiarena eta Osakidetzako zuzendari nagusiarena, gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen edo jatorria lanbidean dutela susmatzen den gaixotasunak jakinarazteko prozedurari buruzkoa» eta «2007ko abenduaren 11ko Ebazpena, Osalaneko zuzendari nagusiarena, Osalaneko Laneko Osasuneko Unitateko prebentzio-zerbitzuetatik gaixotasun profesionalen susmoak jakinarazteko prozedura ezartzen duena» (2008ko urtarrilaren 17ko EHAA, 12. zk.).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko medikuak eta prebentzio-zerbitzuetako medikuak sartuko dira prozedura horretan, eta haiek eman ahal izango dute susmo-diagnostikoa.

GPSak jakinarazteko prozedura 2008an jarri zen abian EAEn. «Gaixotasun profesionalaren susmoaren adierazpena (GPSA)» izeneko aplikazio informatikoaren bidez erregistratzen eta kudeatzen dira susmo-jakinarazpenak. Aplikazio hori partekatzen dute Osalaneko Laneko Osasuneko Unitateek eta Osasun Saileko Ikuskaritza Medikoei. EAEko Gizarte Segurantzako 7 mutualitate laguntzaile (GSML) nagusiek erabiltzen dute aplikazio hori, beren aplikatiboen bidez, bai eta EAEn baimenduta dauden prebentzio-zerbitzuek ere, «Gutxieneko Datu Multzoa» aplikazioaren bidez.

Jakinarazpenak dagozkien GSMLei igortzen zaizkie web zerbitzuaren bidez, amianto agente eragile duten gaixotasunak izan ezik, horiek GSINera igortzen baitira, «*GSINren, EAEko Administrazio Orokorren, Osakidetza eta Osalanen arteko lankidetzaren hitzarmen espezifikoan*» xedatzen den eran.

GPSak jakinarazteko sistema horren xedeak honako hauek dira, beste batzuen artean:

- Gaixotasun profesionalen adierazpenak erraztea.
- Sistema publikoko osasun-zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuek gaixotasun profesionalak neurri handiagoan identifikatzea eta jakinaraztea.
- Langileek GPen arloan Gizarte Segurantzaren babesa jasotzeko duten eskubidea sendotzea.
- Osasunari buruzko datuen iturri bat izatea, laneko osasunaren esparruan prebentzioprogramak prestatu ahal izateko.

2.

Metodoa

Txosten honetan, GPS jakinarazpenen ezaugarri nagusien azterketa deskriptiboa egingen da, 3 atal nagusitan banatuta. Alde batetik, 2013tik 2022ra bitarte jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaera aztertzen du. Bigarrenik, 2022an jasotako jakinarazpen guztien ezaugarri nagusiak deskribatzen dira, eta, hirugarrenik, izapidetu eta baloratzeko GSMLei eta GSiNri igorritako jakinarazpenei buruzko azterketa deskriptibo zehatza egingen zen.

2.1. Datu-iturria eta aztertutako denbora-tartea

GPS jakinarazpenei buruzko azterketa-txosten hau egiteko, espedienteak izapidetzeko erabiltako GPSA aplikazio informatikoan sortutako fitxategia izan zen datu-iturria. Gainera, informazio-iturri osagarri gisa erabili ziren EAeko biztanleria zenbatetsiaren datuak, EUSTATEk argitaratuak.

Jasotako jakinarazpenek denborak aurrera egin ahala izandako bilakaera aztertzeko, 2013tik 2022ra bitarteko datuak erabili ziren.

2022ko jakinarazpenen azterketa deskriptiboa egiteko, GPSA aplikazioan 2022ko urtarri-laren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitarte erregistratutako jakinarazpenetako informazioa erabili zen.

Ebatzitako espedienteak zenbatu ahal izateko, 2023ko azaroaren 8ra bitarte jasotako datuak bildu ziren. Jaso dira, gerora, aurreko urteetako espedienteen jakinarazpenen gaineko beste ebazpen batzuk; beraz, posible da onartutakoen eta baztertutakoen azken kopurua aldatu izana.

2.2. Aztertutako populazioa, sartzeko irizpideak eta kanporatzeko irizpideak

EAEko enpresetako langile guztiak sartu ziren aztertutako populazioan, langileen bizitokia EAEtik kanpo bazegoen ere.

Jakinarazpenak izapidetzeko prozeduran, aurretiazko zenbait egiaztapen egin ziren, azkenean GPSak izapidetuko ziren ala ez erabakitzeko.

2013tik 2022ra bitarte jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaeraren azterketan, eta 2022ko jakinarazpen guztien azterketan, jasotako GPS guztiak sartu ziren.

2022an GSMLetara eta GSINra izapidetutako jakinarazpenen azterketa deskriptiboan, alde batera utzi ziren 1299/2006 EDko gaixotasun profesionalen koadroan jaso gabeko diagnostikoak zituztenak, aplikazioan erregistratu baino lehen GP gisa aitortuta zeuden jakinarazpenak, aurretik izapidetutakoak eta lanbideko kontingentziengatiko prestazioa jasotzeko eskubiderik ez zuten langileenak. Horiez gainera, baztertu egin ziren prozedura bertan behera utzi nahi izan zutenen eta beren lan-ibilbideari buruzko informaziorik eman ez zuten pertsonen jakinarazpenak.

Azken puntu horri buruz, esan behar da azterketan sartu zirela, Gizarte Segurantzaren zuten egoera alde batera utzita, erretiratutako pertsonen eta langabezia-egoeran zeuden pertsonen jakinarazpenak, gaur egun prestazioa jasotzeko eskubiderik izan ez arren, lan-egoera aktiboko langile zirenean GP aitortzeko eskubidea baldin bazuten.

2020. urtetik aurrera, norbere kontura dabiltzan edo autonomoak diren langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian kotizatzen duten langileen azterketa egiten hasi zen.

2.3. Aztertutako aldagaiak eta erabilitako maiztasun-neurriak

Honako aldagai nagusi hauek bildu ziren azterketarako:

DIMENTSIOA	ALDAGAI DESKRIBATZAILEA
PERTSONA	Sexua Adina
GAIXOTASUNA	Diagnostikoa (GNS, diagnosi-taldeak, 1299/2006 ED taldea)
LANA	Enpresaren kokapena (lurraldea) Agente eragilea Sektorea
JAKINARAZPENEN JATORRIA	Jatorria AH/LM/Prebentzio-zerbitzua
EBAZPENA	ESI/Prebentzio-zerbitzuaren mota Onartzea / Ez onartzea

GPSak Osakidetzatik eta prebentzio-zerbitzuetatik jakinarazi ziren, eta horrek izena eman zien bi jatorriei: Osakidetza (O) jatorria eta Prebentzio Zerbitzua (PZ) jatorria.

O jatorriko jakinarazpenen iturria aztertzeke, bere aldetik, honako atal hauek banatu ziren: Lehen Mailako Arreta (LM), Ospitale Arreta (OA), eta Ikuskaritza Medikoa (IM). SP jatorria, bere aldetik, Prebentzio Zerbitzutik (PZ) zetozenen eta Laneko Osasuneko Unitatetik (LOU) zetozenen artean banatu zen.

Osakidetzako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, zer osasun-etxetatik zetozen kontuan hartu eta ESika multzokatu ziren. Prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, jasotako jakinarazpenak PZ motaren arabera multzokatu ziren: alde batetik, kanpoko prebentzio-zerbitzuetatik (KPZ) zetozenak, eta, bestetik, prebentzio-zerbitzu propioetatik edo mankomunatuetatik (PZP-PZM) zetozenak.

Jakinarazpenak jarduera-sektoreka aztertzeke, EJSN 09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera kodetu ziren, eta bi digitutara multzokatu ziren.

Txosten honetan egindako azterketa deskriptiborako, aztertutako aldiari jasotako jakinarazpenetako zenbakiak edo zenbaketak erabili ziren batez ere, eta baita ehunekoak ere. Beste alde batetik, 2013tik 2021era bitarte jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaera aztertzeke, tasak erabili ziren, EAEko 16 urtetik gorako populazio orokorra hartuta erreferentzia gisa, aztertutako urte bakoitzean Gizarte Segurantzarekiko afiliazioa edozein izanda ere. Taula eta grafiko gehienetan sexu-aldagaiaren eta jatorri-aldagaiaren arabera banatu ziren emaitzak.

Datuak aztertzeke Oracle® Business Intelligence programa erabili zen, eta grafikoak eta taulak Excel 2016 programaren bidez sortu ziren.

3.

Emaitzak

3.1. GPS jakinarazpenen bilakaera 2013-2022

EAEEn GPS jakinarazteko prozedura ezarri zenetik, jakinarazpenen intzidentzia-tasa handiagoa izan zen nabarmen biztanleria orokorrean bi urtetan: 2010ean (% 0,52) eta 2012an (% 0,94). Aurreko urtearekin alderatuta, bikoitzera hazi zen, prebentzio-zerbitzuetatik zetozen jakinarazpenen ondorioz, aurrerako azterketan jakinarazi den bezala. 2013. urtetik aurrera, jakinarazpen-tasak beheranzko joera izan du, eta urtero mantendu da, 2022an izan ezik (% 0,25), urte horretan igo eta 2018ko intzidentziara iritsi baita. (GPS taula eta 1. grafikoa)


2022an jakinarazpenen guztizko kopurua % 21 igo zen 2021aren aldean.

GPS-1 taula. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa. EAE, 2013-2022

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
INTZIDENTZIA-TASA %	0,43	0,38	0,31	0,31	0,24	0,25	0,23	0,21	0,20	0,25
JAKINARAZPEN-KOPURUA	803	709	585	587	443	478	432	394	372	469

1. grafikoa


GPS jakinarazpenen intzidentzia-indizea eta kopurua. EAE, 2013-2022



Arabako intzidentzia-tasa Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino handiagoa izan zen 2013tik 2016ra bitartean; 2017. urtetik aurrera, Gipuzkoan intzidentzia-tasa altuagoa izan zen, 2. grafikoa ikus daitekeen bezala. 2022an, intzidentzia-tasak gora egin zuen hiru lurraldeetan aurreko urtearekin alderatuta, eta handiagoa izan zen Gipuzkoan (‰ 0,26) Araban (‰ 0,22) eta Bizkaian (‰ 0,25) baino.

2. grafikoa

GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa lurraldeka. EAE, 2013-2022



3.1.1. GPS 2013-2022 bilakaera, sexuaren arabera


Urte ezberdinetako guztizko komunikazio-tasak lotura zuzena izan zuen gizonen komunikazio-tasarekin; izan ere, urte guztietan komunikazio gehienak gizonenak izan ziren, eta emakumeen intzidentzia-tasa txikiagoa izan zen. 2022an, 2008an lanbide-gaixotasunen susmoak jakinarazteko prozedura hasi zenetik izandako emakumeen jakinarazpen-tasa handiena izan zen, ‰ 0,17koa (3. grafikoa eta GPS-2 taula).

GPS-2 taula. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2013-2022

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
GIZONEN INTZIDENTZIA-TASA ‰	0,75	0,67	0,55	0,53	0,38	0,36	0,37	0,29	0,29	0,33
EMAKUMEEN INTZIDENTZIA-TASA ‰	0,12	0,11	0,09	0,11	0,10	0,16	0,10	0,13	0,11	0,17

3. grafikoa

GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2013-2022



3.1.2 GPS 2013-2022 bilakaera, sorburuaren eta jatorriaren arabera


2022. urtean, GPSen 469 jakinarazpen jaso ziren. 4. grafikoan ikus daitekeen bezala, EAEko jakinarazpenen guztizko kopurua % 26 igo zen 2021aren aldean, Osakidetzaen jakinarazpenen hazkundearen ondorioz.

Komunikazio-sistemaren hasiera-hasieratik, jakinarazpen gehienak prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboek jarri zituzten, baina 2020. urtean joera hori aldatu egin zen. 2022. urtean, joera horri eutsi zitzaion; Osakidetza jatorriko jakinarazpenak 295 izan ziren, prebentzio-zerbitzuan jatorria zuten 170 jakinarazpenen aldean.

Osakidetzatik jasotako jakinarazpenen kopuruak goranzko joera izan zuen, eta horrek konpentsatu egin zuen prebentzio-zerbitzuetatik jasotako jakinarazpenen kopuruak izandako beheranzko joera.

Osakidetza jatorriko GPSen gorakada % 50ekoa izan zen 2021etik 2022ra, eta Prebentzio Zerbitzukoak mantendu egin ziren.

4. grafikoa
Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera.
EAE, 2013-2022



3. GPS taulan, 2013az geroztik jasotako jakinarazpenak agertzen dira, jatorriaren arabera sailkatuta. Aurreko urteetan ez bezala, 2022an jatorri nagusia Osakidetza Lehen Mailako Arreta izan zen, eta ez Prebentzio Zerbitzuak.

2020an hasitako joerari eutsi zaio, LMA jatorriak aurrea hartu baitzion OA jatorriari. 2022. urtean, Osakidetza langileen jakinarazpenen % 69 lehen mailako arretakoa da.

Osakidetzatik, norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezira atxikitako langileen GPSak jakinarazi ziren: 2022an, zehazki, 18 jakinarazpen, horietatik 12 LM jatorrikoak.

GPS-3 taula. Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera.
EAE, 2013-2022

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
OSPITALEKO ARRETA	21	26	52	118	74	161	142	91	72	89
LEHEN MAILAKO ARRETA	47	29	12	26	16	7	32	132	126	206
IKUSKARITZA MEDIKOA	18	9	7	2	6	4	4	7		2
PREBENTZIO ZERBITZUA	716	643	508	440	340	306	254	160	173	170
LAN OSASUNEKO UNITATEA	1	1	5	1	7			4	1	2

GPS-4 taulan, azken 10 urteotan prebentzio-zerbitzuetatik jasotako jakinarazpenak sailkatu dira jatorriaren arabera, eta KPZetatik edo PZP-PZMetatik jaso ziren adierazita da.

Kanpoko prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboak dira jakinarazle nagusiak urte guztietan. 2022an handitu egin da KPZ jatorria 2021arekin alderatuta, baina ez dira iristen pandemiaren aurreko kopuruetara.

2022an, prebentzio-zerbitzu propioen eta mankomunatuena jakinarazpenak % 42 murriztu ziren 2021eko jakinarazpenekin alderatuta.

GPS-4 taula. Jakinarazpenen jatorria PZ motaren arabera.
EAE, 2013-2022

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
KANPOKO PREBENTZIO-ZERBITZUAK	682	595	458	402	313	265	218	117	120	139
PREBENTZIO-ZERBITZU PROPIOAK ETA MANKOMUNATUAK	31	35	43	37	27	40	34	46	53	31

GPS-5 taulan, ESlek jasotako jakinarazpenak agertzen dira. Osakidetza eskuratutako jakinarazpenak sareko 94 osasun-zentrotan hasi ziren, 2021ean ez bezala, urte hartan hasitakoak 72 izan baitziren.

ESI guztietan handitu ziren jakinarazpenen kopurua, TOLOSALDEA ESlan izan ezik. BILBAO-BASURTU eta BARRUALDE-GALDAKAO ESlek Osakidetza eratorritako GPS jakinarazpenen % 44 bildu zuten.

GPS-5 taula. Jakinarazpenen jatorria ESI-ka. EAE, 2013-2022

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
BILBAO-BASURTUKO ESIA	2	2	16	49	31	51	44	55	48	67
BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIA	6	12	15	35	35	41	74	43	53	65
DONOSTIALDEKO ESIA	4	3	4	2	8	14	13	28	21	31
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESIA	8	8	14	24	7	29	21	27	20	32
DEBABARRENEKO ESIA	3	2		4	2	1	1	19	2	2
GOIERRI-UROLA GARAIKO ESIA	13	7	5	3	6	10	6	18	16	29
URIBEKO ESIA	6	2		3	6	1	8	17	4	18
ARABAKO ESIA	12	10	7	12	5	1	7	9	26	28
TOLOSALDEKO ESIA			1		1	3	2	9	4	2
BARAKALDO-SESTAOKO ESIA	3	2	1	6	1	3	3	6		7
DEBAGOIENENKO ESIA	11	7	2	4			1	4	3	10
BIDASOAKO ESIA		1					1	2	1	6
ED	18	9	7	4	3	1	3	7		0

3.1.3 GPS 2013-2022 bilakaera, diagnosi-taldearen arabera

GPS-6 taulan azken 10 urteetan diagnostiko-taldearen eta/edo GNSen arabera multzokatutako jakinarazpenek izan duten bilakaera ikus daiteke, eta diagnostiko guztiek gorakada izan dute, tumorak ez diren pleura-alterazioak izan ezik.

2022an, 2021. urtearekin alderatuta, handitu egin dira hipoakusiaren, tumoreen, pneumokoniosiaren, gaixotasun infekziosoen, gaixotasun dermatologikoen, asmaren eta ahotskor-detako noduluen jakinarazpenak.

GPS-6 taula. Jakinarazpenen kopurua diagnosi-taldearen arabera. EAE, 2013-2022

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
EPIKONDILITISA	50	40	41	38	23	35	48	83	74	90
BESTE GAIXOTASUN OSTEOMUSKULAR BATZUK	42	28	29	18	16	28	40	48	54	85
HIPOAKUSIA	552	500	351	274	209	112	115	67	76	81
KARPOKO KANALAREN SINDROMEAK	42	35	38	57	45	30	28	46	50	68
TUMOREAK	13	8	23	31	30	44	39	35	32	37
PNEUMOKONIOSIA	35	32	32	101	50	73	45	29	20	28
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK	6	9	8	5	22	44	17	25	21	25
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK	12	8	15	11	14	17	21	23	9	15
PLEURA-ALTERAZIO EZ TUMORALA	3	2	3	5	1	16	35	17	19	14
ASMA	17	17	21	18	12	61	26	15	7	13
NODULUAK AHOTS-KORDETAN	20	24	17	23	18	10	4	3	4	8
BESTE ARNASKETA-GAIXOTASUN BATZUK	1	2	5	3	2	6	14	3	4	5
GAINERAKO PATOLOGIAK	10	4	2	3	1	2			2	

Jakinarazitako patologia guztien % 52 gaixotasun osteomuskularrak izan ziren.

Gaixotasun osteomuskular komunikatuena epikondilitisa izan zen, eta, ondoren, gainerako gaixotasun osteomuskular multzokatuak (sorbalako lesioak, tenosinobitisak, kako-hatzak, etab.) eta karpoko tunelaren sindromea (GPS-7 taula).


GPS-7 taula. Gaixotasun osteomuskularren jakinarazpenen kopurua. EAE, 2013-2022

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
EPIKONDILITISA	50	40	41	38	23	35	48	83	74	90
BESTE GAIXOTASUN OSTEOMUSKULAR BATZUK	42	28	29	18	16	28	40	48	54	85
KARPOKO KANALAREN SINDROMEAK	42	35	38	57	45	30	28	46	50	68

3.1.4 GPS jakinarazpenen bilakaera 2013-2022: GP-en aitorten-maila

5. grafikoan antzeman daitekeenez, onarpen-mailaren ehunekoa orokorrean bere horretan mantendu da urteetan zehar 2020ra arte, urte horretan murrizteko. 2022. urtean, 2021. urtearekin alderatuta, gizonen onarpenen ehunekoa murriztu egin da, GPSen % 51tik % 47ra.


Urteetan zehar emakumeen onarpen-ehunekoa aldagarriagoa izan da, nahiz eta urtero onarpena gizonena baino txikiagoa edo berdina izan. 2022. urtean, emakumeen onarpenen ehunekoa % 47tik % 27ra jaitsi da 2021. urtearekiko.



GP gisa onartutako jakinarazpenei dagokienez, bi jatorrietan, 2022an behera egin zuen prebentzio-zerbitzuetatik zetozen GPSetatik onartutako jakinarazpenen proportzioak (% 53), eta gora Osakidetzatik zetozenen proportzioak (% 32), 6. grafikoan ikus daitekeen bezala. Puntu honetan, aipatzekoa da «ez onartua» proportzioaren gainerakoan sartzen direla baztertutako susmoak, erantzuteke dauden susmoak eta martxan dauden susmoak.

PZ jatorriko GPSen onarpen handiagoa, ziurrenik, eta neurri batean, jakinarazitako patologia motarengatik gertatu zen: barne-belarriko gaixotasunek beste patologia batzuek baino onarpen-ehuneko handiagoa dute.

6. grafikoa
Onartutako jakinarazpenen ehunekoa jatorriaren arabera.
EAE, 2013-2022



3.2. 2022. Urteko GPSen jakinarazpen guztien analisisa

Guztira, GPSen 469 jakinarazpen jaso ziren 2022an; 170 prebentzio-zerbitzuetako pertsonal fakultatibotik etorri ziren, 295 Osakidetza pertsonal fakultatibotik, IMn hasitako biez eta Osalanen LOUn hasitako biez gainera (GPS-3 taula). Osakidetzan sortutako GPSak totalaren % 63 izan ziren 2021ean eta PZ jatorrikoak % 37.

Lurraldeka, Bizkaia izan zen jakinarazpen gehien izan zituen lurraldea (245), ondoren Gipuzkoa (162) eta azkenik Araba (62).

2022. urtean, GPSak gehien bat gizonenak izan ziren: 298 gizonetan, 170 emakumeekin alderatuta; hala ere, emakumeen GPS kopurua 2021ean 107 izatetik 2022an 170 izatera igo zen.

Norbere kontura dabilizan edo autonomoak diren langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko langileen 18 GPS jakinarazi dira: 13 gizonenak eta 5 emakumeenak.

EAEn baimendutako PZ guztietatik, 17k GPS jakinarazpen bat egin zuten gutxienez 2022an, eta gainerakoek ez zuten lanbide-gaixotasunaren susmorik jakinarazi.

2022ko jakinarazpenei dagokienez, prebentzio-zerbitzuetatik datozenak kontuan hartuta, 139 KPZetako medikuek hasi zituzten, eta 31 PZP-PZMetako medikuek.

GPS-8 taulan ikus daitekeen moduan, PZen adierazpenak ez ziren homogeneousak izan, KPZ bakarrean abiatu baitziren jakinarazpenen % 59 eta bi prebentzio-zerbitzutan PZP-PZMetan sortutako jakinarazpenen % 74.

SEP-8. taula. Jakinarazpenen jatorria prebentzio-zerbitzuen arabera. EAE, 2022

	PREBENTZIO-ZERBITZUA	JAKINARAZPEN-KOPURUA
KPZ	IMQ PREVENCIÓN S.L.	100
	CFP SERVICIO DE PREVENCIÓN, S.L.	12
	QUIRÓN PREVENCIÓN, S.L.U.	10
	IBERSYS SEGURIDAD Y SALUD, S.L.	7
	LAUTALAN, S.L.	4
	PREVITEK-PREVITASA, S.L.	3
	ASPY PREVENCIÓN, S.L.	1
	CUALTIS, S.L.U.	1
	PREVING CONSULTORES, S.L.U.	1
PZP-PZM	OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA	11
	PZM OSARTEN	12
	EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILA	3
	BILBOKO UDAL ERAKUNDEAK	1
	EUSKO JAURLARITZA - ADMINISTRAZIO OROKORRA	1
	METRO BILBAO, S.A.	1
	SPM SAN PRUDENCIO	1
	EHU	1

GPS-9 taulan ikusten da 2022an jasotako GPS guztien banaketa eta horien emaitza.

Gizarte Segurantzaren aurkeztutako susmoak izapidetu aurretik, jasotako kasu bakoitzeko, Cepross sisteman gaixotasun profesionalaren parterik ba ote zegoen egiaztatu zen. 2022. urtean, hori gertatu zen 41 jakinarazpenetan, eta ez ziren, ondorioz, izapidetutako jakinarazpen moduan zenbatu (20 PZ jatorrikoak ziren eta 21 O jatorrikoak).

Metodologiaren zatian azaldu den bezala, beste irizpide batzuk egon ziren baztertzeko, eta, beraz, beste 33 jakinarazpen geratu ziren Gizarte Segurantzara izapidetu gabe, guztiak Osakidetza jatorrikoak.

GPS-9 taula. Jakinarazpenen guztirako kopurua eta emaitza jatorriaren arabera. EAE, 2022

	AURRETIAZKO GP	EZ DA IZAPIDETU BEHAR	MARTXAN	ZAIN ERANTZUNA	ONARTUTAKO GP	BAZTERTUTAKO GP	GUZTIRA
PZ JATORRIA	20	0	0	5	77	70	172
JATORRIA OSAKIDETZA	21	33	1	34	73	135	297
GUZTIRA	41	33	1	39	150	205	469

Txosten hau idazteko datuak eskuratu diren datan, Osakidetza jatorriko susmo 1 geratu da martxan. Izapidetutako GPSen % 89an GSMLren erantzuna jaso da.


3.3. 2022. urtean izapidetutako GPS jakinarazpenen analisia

3.3.1. 2022an izapidetutako GPS jakinarazpenak: Lurraldea, sorburua eta jatorria

Guztira, 2022an, jasotako 469 jakinarazpenetatik 395 GPS jakinarazpen izapidetu ziren Gizarte Segurantzari, bertan baloratzeko (guztien % 84). Gehienak Bizkaian jakinarazi ziren (205), ondoren Gipuzkoan (132) eta Araban (58), 7. grafikoan ikus daitekeen bezala.

7. grafikoa

Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2022



Aurreko urteetan ez bezala eta 2021. urteko joerari jarraikiz, izapidetu diren jakinarazpen gehienak Osakidetzako langile fakultatiboek hasi zituzten (243), Bizkaian eginik horietatik 141 jakinarazpen, 64 Gipuzkoan eta 38 Araban.

Nabarmentzekoa da 2022an O jatorriko komunikazioek gora egin dutela 2021arekin alderatuta, 161etik 243ra.

PZ jatorriko GPSe ere gora egin zuten EAE osoan 2021etik 2022ra bitartean, baina neurri txikiagoan, 125etik 152ra.

Bizkaian eta Araban, Osakidetzako pertsonal fakultatiboak hasitako jakinarazpenak Prebentzio Zerbitzuetako pertsonal fakultatiboak hasitakoak baino gehiago izan ziren; Gipuzkoan, berriz, ia parekatuta egon ziren Prebentzio Zerbitzuko eta Osakidetzako pertsonal fakultatiboak hasitakoak (7. grafikoa).

Langile autonomoi dagokionez, esan behar da 2022an 11 jakinarazpen izapidetu direla Bizkaian, 1 Gipuzkoan eta 1 Araban, guztiak Osakidetzatik etorritakoak (10 lehen mailakoak eta 3 ospitaleko arretakoak).

GPS-10 taulan, jasotako jakinarazpenak agertzen dira sorburuaren eta jatorriaren arabera sailkatuta. Hainbat jatorritatik izapidetutako GPSen kopuruari dagokionez, ohikoena Osakidetzako Lehen Mailako Arreta izan zen (174), ondoren Prebentzio Zerbitzua (151) eta Osakidetzako Ospitale Arreta (53).

GPS-10 taula. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2022

	JATORRIA OSAKIDETZA		JATORRIA PREBENTZIO ZERBITZUA		GUZTIRA
	OSPITALEKO ARRETA	LEHEN MAILAKO ARRETA	PREBENTZIO ZERBITZUA	LOU	
ARABA	4	34	19	1	58
GIPUZKOA	12	52	68		132
BIZKAIA	52	88	63	1	204
GUZTIRA	68	174	151	2	395


Aipatzekoa da Osakidetzaren LMAn sortutako jakinarazpenen kopuruak gora egin duela 2021. urtearekin alderatuta, 108 jakinarazpen izatetik 174 izatera igaro baita. PZetatik (124tik 151ra) eta Osakidetzako Ospitale Arretatik (53tik 68ra) izapidetutako jakinarazpenak ere ugartu egin ziren.

Lurraldeka, nabarmentzekoa da Araban PZetan sortutako jakinarazpenen kopuruak behera egin duela, 24tik 19ra, eta Gipuzkoan OAn sortutako jakinarazpenen kopuruak behera egin duela, 19tik 12ra.

3.3.2. 2022an izapidetutako GPS jakinarazpenak: Lurraldea eta sexua

8. grafikoan ikus daitekeen bezala, izapidetutako jakinarazpen gehienak gizonen gainekoak izan ziren hiru lurraldeetan. Guztira izandako 395 jakinarazpenetatik, % 65 gizonenak izan ziren (255), eta % 35 emakumeenak (140). 2021. urtearekin alderatuta, jakinarazpenen kopuruak gora egin du bai gizonen artean (199tik 255era), bai emakumeen artean (87tik 140ra). Aipatzekoa da, oso gutxi bada ere, emakumeei lotuta izapidetu diren jakinarazpenen proportzioak gora egin duela (2021ean, izapidetutako jakinarazpenen % 30 emakumeenak izan ziren, eta % 35 2022an).

8. grafikoa
Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sexuaren arabera.
EAE, 2022




3.3.3. 2022an izapidetutako Gaixotasun Profesionalaen Susmoen (GPS) jakinarazpenak: diagnostiko-taldeak eta 1299/2006 Errege Dekretukoak

9. grafikoan ikus daiteke nola banatu diren 1299/2006 Errege Dekretuko 6 taldeetatik jasotako jakinarazpenak 2022. urtean. Nabarmentzekoak dira 2. taldeko komunikazioak, agente fisikoek eragindako GPak (hipoakusiak, gaixotasun osteomuskularrak eta ahotskorden noduluak), 284 jakinarazpenekin, eta horien atzetik substantziak arnasteak eragindako gaixotasun profesionalak, 35 jakinarazpenekin.

9. grafikoa

Izapidetutako jakinarazpenen kopurua 1299/2006 ED-ko taldeen arabera.
EAE, 2022



10. grafikoa GNS-10aren arabera kodetutako GPS komunikazioen diagnostikoak deskribatzen ditu. Diagnostiko klinikoaren multzoak dira honakoak: pneumokoniosia, tumoreak, beste gaixotasun osteomuskular batzuk, gaixotasun dermatologikoak, gaixotasun infekziosoak eta beste arnasketa-gaixotasun batzuk.


Epikondilitisa izan zen gehien azaldutako diagnostikoa, 80 jakinarazpenekin, eta bigarren hipoakusia, 74 jakinarazpenekin. Ondoren, beste gaixotasun osteomuskular batzuk datoz, 71 jakinarazpenekin; karpoko tunelaren sindromea, 55 jakinarazpenekin; tumoreak, 34 jakinarazpenekin; gaixotasun infekziosoak eta pneumokoniosia, biak 23 jakinarazpenekin; gaixotasun dermatologikoak, 12 jakinarazpenekin; pleura-alterazio ez-tumoralak, 7 jakinarazpenekin; asma, 6 jakinarazpenekin; ahots-soken noduluak, 6 jakinarazpenekin; eta beste arnas gaixotasun batzuk, 4 jakinarazpenekin.

Beste gaixotasun osteomuskular batzuen diagnostiko-taldean 71 komunikazio sartu ziren, batez ere sorbaldako alterazioak (30) eta sinobitisa eta tenosinobitisa eskuan (36).

2022an, tumoreen GPSen 34 jakinarazpen izapidetu ziren, 18 mesotelioma, bronkio eta biriketako 13 tumore (gehienak agente eragile nagusi gisa asbestoa zutenak), maskuriko 2 neoplasia gaizto, eta bihotzeko, mediastinoko eta pleurako neoplasia gaizto 1.

Gaixotasun infekziosoen artean, nabarmentzekoa da 12 eskabiosi-diagnostikoei zegozkiela, 7 Q sukarrari, 2 beste bakterio-gaixotasun batzuei, 1 bruzelosiari eta 1 tuberkulosiari.

10. grafikoa
Jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera.
EAE, 2022



Aldea egon zen diagnostiko desberdinen maiztasunean sexuaren arabera, GPS-11 taulan azaltzen den bezala.

Emakumeetan patologiarik ohikoenak hauek izan ziren: epikondilitisa (42), karpoko tunelaren sindromea (35), beste gaixotasun osteomuskular batzuk (34), gaixotasun infekziosoak (13) eta gaixotasun dermatologikoak (6).

Gizonetan diagnostiko ohikoenak hauek izan ziren: hipoakusiak (73), epikondilitisa (38), bestelako gaixotasun osteomuskularrak (37), tumoreak (32), pneumokoniosia (22), karpoko tunelaren sindromea (20), gaixotasun infekziosoak (10) eta tumoreak ez diren pleura-alterazioak (7).

GPS-11 taula. Jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera eta sexuaren arabera. EAE, 2022

	GIZONA	EMAKUMEA
EPIKONDILITISA	38	42
HIPOAKUSIA	73	1
BESTE GAIXOTASUN OSTEOMUSKULAR BATZUK	37	34
KARPOKO KANALAREN SINDROMEA	20	35
TUMOREAK	32	2
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK	10	13
PNEUMOKONIOSIA	22	1
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK	6	6
PLEURA-ALTERAZIO EZ TUMORALA	7	
ASMA	5	1
NODULUAK AHOTS-KORDETAN	2	4
BESTE ARNASKETA-GAIXOTASUN BATZUK	3	1

3.3.4. 2022an izapidetutako GPS jakinarazpenak: agente eragilea

Jakinarazpen gehienetako diagnostikoa gaixotasun osteomuskularra izan zenez, agente eragile nagusiak Postura behartuak eta mugimendu errepikakorrak izan ziren. GPS-12 taulan ikus daiteke 92 jakinarazpen izan zirela gizonen artean eta 111 emakumeen artean. Gehien agertutako agenteen artean bigarrena zarata izan zen, 73 jakinarazpen eraginik gizonen artean. Ondoren, asbestoa, 49 jakinarazpenekin gizonen artean eta 2 jakinarazpenekin emakumeen artean.

GPS-12 taula. Jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta sexuaren arabera. EAE, 2022

	GIZONA	EMAKUMEA
POSTURA BEHARTUAK ETA MUGIMENDU ERREPIKAKORRAK	92	111
80 DEZIBELEKO ZARATA JARRAITUA EDO HANDIAGOA A.	73	1
ASBESTOA (AMANTOA)	49	2
SILIZEA	8	
COXIELLA BURNETTI	7	
PISU ALTUKO SUBSTANTZIAK	4	4
OHARRETAN ZEHAZTU BEHARREKOA	3	
AHOTSAREN AHALEGIN IRAUNKORRAK ARRAZOI PROFESIONALEN ZIOZ	2	4
LEGIONELLA	2	
MANGANESOA ETA KONPOSATUAK	2	
PISU BAXUKO SUBSTANTZIAK	2	1
ALDEHIDOAK: AZETALDEHIDOAK, ALDEHIDO AKRILIKOA, ALDEHIDO BENTZOIKOA, FORMALDEHIDOAK, GLUTARALDEHIDOAK	1	1
AMINAK (PRIMARIOAK, SEKUNDARIOAK, TERTZIARIOAK, HETEROZIKLIK- KOAK)...	1	
BRUCELLA MELINTENSIS, ABORTUS, SUIIS, CANIS	1	
KADMIOA	1	
KLOROA ETA KONPOSATU EZ-ORGANIKOAK	1	1
KROMO TRIBALENTEA ETA KONPOSATUAK	1	
BESTE HAUTS MINERAL BATZUK (TALKOA, KAOLINA, BESTE SILIKATO BATZUK)	1	
BANADIOA ETA KONPOSATUAK	1	
ESKUETARA TRANSMITUTAKO BIBRAZIO MEKANIKOA	1	
AZIDO SULFURIKOA ETA SUFRE-OXIDOAK	1	
ESTER ORGANIKOAK ETA HORIEN DERIBATU HALOGENATUAK	1	
HIDROKARBURU AROMATIKO POLIZIKLIKOA		1
PREBENTZIO, LAGUNTZA MEDIKO ETA PERTSONEN ARRETA LANAREN ZIOZKO INFEKZIOAK		13
NIKELA ETA NIKEL-KONPOSATUAK		1

GPSen jatorriari dagokionez, GPS-13 taulan ikus daitekeenez, postura behartuen eta mugimendu errepikakorren ondoriozko jakinarazpenak Osakidetzatik jakinarazi ziren gehienbat, 162 jakinarazpenekin, eta prebentzio-zerbitzuek 41 jakinarazpen bidali zituzten.

Prebentzio-zerbitzuek 66 espedientetan jakinarazi zituzten zarata agente eragile izan zuten jakinarazpenak, eta Osakidetza 8 espedientetan. Bat izan ezik, Osakidetza jaso ziren Asbestoa agente eragile duten jakinarazpen guztiak.

GPS-13 taula. Jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2022

	OSAKIDETZA	PREBENTZIO ZERBITZUA
POSTURA BEHARTUAK ETA MUGIMENDU ERREPIKAKORRAK	162	41
ASBESTOA (AMIANTOA)	50	1
80 DEZIBELEKO ZARATA JARRAITUA EDO HANDIAGOA A.	8	66
SILIZEA	5	3
PREBENTZIO, LAGUNTZA MEDIKO ETA PERTSONEN ARRETAKO LANAREN ZIOZKO INFEKZIOAK	3	10
OHARRETAN ZEHAZTU BEHARREKOAK	2	1
AHOTSAREN AHALEGIN IRAUNKORRAK ARRAZOI PROFESIONALEN ZIOZ	2	4
PISU ALTUKO SUBSTANTZIAK	2	6
PISU BAXUKO SUBSTANTZIAK	2	1
ALDEHIDOAK: AZETALDEHIDOA, ALDEHIDO AKRILIKOA, ALDEHIDO BENTZOIKOA, FORMALDEHIDOA, GLUTARALDEHIDOA.	1	1
KADMIOA	1	
KLOROA ETA KONPOSATU EZ-ORGANIKOAK	1	1
KROMO TRIBALENTEA ETA KONPOSATUAK	1	
HIDROKARBURO AROMATIKO POLIZIKLIKOAK	1	
BESTE HAUTS MINERAL BATZUK (TALKOA, KAOLINA, BESTE SILIKATO BATZUK)	1	
AZIDO SULFURIKOA ETA SUFRE-OXIDOAK	1	
AMINAK (PRIMARIOAK, SEKUNDARIOAK, TERTZIARIOAK, HETEROZIKLIKOAK)...		1
BRUCELLA MELINTENSIS, ABORTUS, SUIS, CANIS		1
COXIELLA BURNETTI		7
LEGIONELLA		2
MANGANESOA ETA KONPOSATUAK		2
NIKELA ETA NIKEL-KONPOSATUAK		1
BANADIOA ETA KONPOSATUAK		1
ESKUETARA TRANSMITITUTAKO BIBRAZIO MEKANIKOA		1
ESTER ORGANIKOAK ETA HORIEN DERIBATU HALOGENATUAK		1


3.3.5 2022an izapidetutako GPS jakinarazpenak: sektoreak

Gizarte Segurantzara izapidetutako 395 jakinarazpenetatik, 27 jakinarazpenetan ez ze-
goen grabatuta EJSN bati lotutako enpresa bat sektore bati esleitzeko, esposizioa enpresa
batean baino gehiagotan gertatu zelako, enpresa ez dagoelako, langileak autonomoak di-
relako eta abar.

11. grafikoan ikus daitekeen bezala, jakinarazpenek sektoreen eta sexuaren arabera duten
banaketari dagokionez, gizonen jakinarazpenen % 51 industriaren sektorekoak dira, eta
emakumeen jakinarazpenen % 84 zerbitzuen sektorekoak.

11. grafikoa

Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta sexuaren arabera. EAE, 2022



14. taulan ikus daitekeenez, patologia osteomuskularrak ohikoagoak dira zerbitzuen sek-
torean, epikondilitis guztien % 56, beste gaixotasun osteomuskular batzuen % 56 eta
karpoko kanalaren sindromearen % 63 biltzen baititu. Hipoakusiaren diagnostikoa mai-
zago gertatzen da oraindik industriaren sektorean, diagnostiko hori duten jakinarazpenen
% 54arekin.

Tumoreen diagnostikoa edo pneumokoniosia duten jakinarazpenak, kasu askotan, en-
presa bati lotuta ez dauden erretiratuei dagozkie, eta, beraz, jakinarazpen kopuru han-
diena *Ez dago sektorerik atalean dute*.

GPS-14 taula. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2022

	EZ DAGO JASOTA	ERAIKUNTZA	INDUSTRIA	LEHEN SEKTOREA	ZERBITZUAK
EPIKONDILITISA		6	27	2	45
HIPOAKUSIA		8	40	6	20
BESTE GAIXOTASUN OSTEOMUSKULAR BATZUK	1	3	27		40
KARPOKO KANALAREN SINDROMEA	1	4	15		35
TUMOREAK	16		11	1	6
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK			2	4	17
PNEUMOKONIOSIA	5	3	11		4
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK			8		4
PLEURA-ALTERAZIO EZ TUMORALA	3		3		1
ASMA			4		2
NODULUAK AHOTS-KORDETAN					6
BESTE ARNASKETA- GAIXOTASUN BATZUK	1		2		1
GUZTIRA	27	24	150	13	181

GPS-15 taulan jakinarazpenen banaketa ikus daiteke, gaixotasun-taldeen, sektorearen eta sexuaren arabera.

GPS-15 taula. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera, sexuka. EAE, 2022

	EZ DAGO JASOTA		ERAIKUNTZA		INDUSTRIA		LEHEN SEKTOREA		ZERBITZUAK	
	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.
PLEURA-ALTERAZIO EZ TUMORALA	3				3				1	
ASMA					4				1	1
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK					5	3			1	3
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK					2		4		4	13
EPIKONDILITISA			6		22	5	1	1	9	36
HIPOAKUSIA			8		39	1	6		20	
PNEUMOKONIOSIA	4	1	3		11				4	
NODULUAK AHOTS-KORDETAN									2	4
BESTE GAIXOTASUN OSTEOMUSKULAR BATZUK	1		3		21	6			12	28
BESTE ARNASKETA-GAIXOTASUN BATZUK	1				2					1
KARPOKO KANALAREN SINDROMEA	1		3	1	11	4			5	30
TUMOREAK	16				11		1		4	2
GUZTIRA	26	1	23	1	131	19	12	1	63	117

3.3.6 2022an izapidetutako GPS jakinarazpenak: adina eta sexua

GPS jakinarazpenen adin-tarte ohikoena 50-64 urte-bitartekoena izan da, 185 jakinarazpenekin, eta hauek izan dira hurrengoak: 30-49 adin-bitartekoena, 145 jakinarazpenekin, 65 urtetik gorakoena, 53 jakinarazpenekin, eta 16-29 adin-bitartea, 12 jakinarazpenekin.


Langile emakumezkoen artean, maiztasun handieneko adin-tartea 30-49 urtekoena izan zen (75 jakinarazpen), eta gizonen artean, berriz, 50-64 urte-bitartekoena (133 jakinarazpen).

GPS-16 taula. Jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera.
EAE, 2022

	GIZONA	EMAKUMEA
16-29	4	8
30-49	70	75
50-64	133	52
65+	48	5
GUZTIRA	255	140

12. grafikoa


Jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera.
EAE, 2022



3.3.7. 2022an izapidetutako GPS jakinarazpenak: ebazpenak

13. grafikoa

Jakinarazpen eta ebazpenen guztirako kopurua jatorriaren arabera.
EAE, 2022



Prebentzio Zerbitzutik datozen jakinarazpenei dagokienez (guztiak izapidetu dira), onarpen osoaren portzentajea % 51 izango litzateke.

Osakidetzatik datozen jakinarazpenei dagokienez (oraindik izapidetu gabeko 4 eta beste erkidego batera bidalitako bat), onarpen osoaren ehunekoa % 31 izango litzateke.

4.

Ondorioak

- GPS jakinarazpen gehiago jaso dira 2022an (469), 2021ean (372) baino.
- Gizonen jakinarazpenen intzidentzia tasa handiagoa izan da urte guztietan. 2022an, emakumeen intzidentzia-tasa 2008an jakinarazpen-sistema hasi zenetik izandako handiena izan da.
- Hirugarren urtez jarraian, jakinarazle nagusia Osakidetzako medikuak dira (295 jakinarazpen 2022an, Prebentzio Zerbitzutik etorritako 170 jakinarazpen aldean).
- 2022an Osakidetzatik jasotako jakinarazpenen kopurua % 50 hazi da; prebentzio-zerbitzutik jasotako jakinarazpenen kopurua, berriz, mantendu egin da.
- Gehikuntza egon da bai arreta espezializatuan sortutako jakinarazpenetan, bai lehen mailako arretan sortutakoetan. 2022. urtean, Osakidetzako langileen jakinarazpenen % 70 lehen mailako arretakoa da, arreta espezializatuaren aurretik, 2020. urtetik gertatu den bezala.
- 2022. urtean, 17 prebentzio-zerbitzuek egin dituzte GPS jakinarazpenak prozedura hori erabilia. Jakinarazpen gehienak kanpoko prebentzio-zerbitzu bakar batetik jaso dira.
- Guztira, jasotako 469 jakinarazpenetatik 395 GPS jakinarazpen izapidetu ziren Gizarte Segurantzari, bertan baloratzeko (guztien % 84).
- Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko langileen 18 GPS jakinarazi dira, eta horietako 11 izapidetu dira GSMLra, baloratzeko.
- Beste urte batzuetan hipoakusia izan da izapidetutako GPSen diagnostikorik ohikoena; 2022an, berriz, epikondilitisa izan da diagnostikorik ohikoena (80 jakinarazpen), eta, ondoren, hipoakusia (74), beste gaixotasun osteomuskular batzuk (71) eta karpoko kanalaren sindromea (55).
- 2022an, tumoreen GPSen 34 jakinarazpen izapidetu ziren, 18 mesotelioma, bronkio eta biriketako 13 tumore (gehienak agente eragile nagusi gisa asbestoa zutenak), maskuriko 2 neoplasia gaizto, eta bihotzeko, mediastinoko eta pleurako neoplasia gaizto 1.
- Sektoreen arabera izapidetutako GPSei dagokienez, 2022an GPS gehien izan zituzten sektoreak Zerbitzuak (181 jakinarazpen) eta Industria (150) izan ziren.

- Gizonen artean jasotako jakinarazpenen profila oraindik ere honako hau da: industriaren sektoreko langilea, 50-64 urte artekoa, hipoakusiako diagnostikoa duena. Emakumeei dagokienez, zerbitzuen sektoreko 30-49 urteko langileak eta gaixotasun osteomuskularra dutenak dira nagusi, 2021. urtean bezala. 53 GPS jaso ziren, 65 urteko edo gehiagoko pertsonen artean.
- 2022an, txosten hau idazteko datuak lortu ziren egunean, Gizarte Segurantzako mutualitate laguntzaileen eta/edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren erantzuna jaso zen Gizarte Segurantzara bidalitako jakinarazpenen % 91n; Prebentzio Zerbitzuetatik etorritakoen % 51k erabateko onarpena jaso zuen, bai eta Osakidetzaatik etorritakoen % 31k ere.



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZERBITZU ZENTRALAK

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

Pintor Clemente Arráiz, 7
01008 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. +34 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190

www.osalan.euskadi.eus